

Lagunartea

Joxean Agirre

Lehen bizitza ez zitzaigun kabitzen agendako orrialdeetan. Hartzen dut tiraderaren zokoan ahaztuta gelditu zen agenda lodi horietako bat eskuetan eta zorabio halako bat sentitzen dut hango anabasaren aurrean. Hitzorduak daude, bilera lekuak, telefonak, elkarriketatu beharreko norbaiti buruzko ohartarazpenak eta galderak, bidean autoa gidatzen nindoala letra baldarrez idatzitako burutazioak. Sentipena dut, ordea, lana eta lagunartea nahastu egiten nituela.

Orain bizitza soziala eta lagunartea Laboraleko egutegi txiki batean kabitzen zaizkit. Ordenagailuaren ondoan daukat eta aspaldi honetan, urte eta erdi bai, ia ia hutsik ikusten nuen, ez hitzordu eta ez zirriborro, eta bizitzari muzin eginda bizi

nintzela sentitzen nuen, barne bizitza gehiegi eta lagunarterik batere gabe.

Kolpetik oreka berregiten hasi dela ikus dezaket. Gaur bertan euskal sortzaileen elkarte berri baten aurkezpena dugu Sanagustinen. Datorren aste honetan lagunarteko sardina jana baserrian. Hurrengoan alabak jotzen duen talde baten kontzertua Bilboko Kafe Antzokian. Hurrengoan manifa Bilbon. Laugarren astean bazkari bat daukat apuntatuta Astesun, trikitiaren inguruan hitz-aspertu bat egiteko, eta semeari Euskaltzaindiak ateradion liburu baten aurkezpena ere ikusten dut zirriborroen artean. Luis Cañasen Amaren upategira bisita dugu segidan eta Durangoko Azokaren lehen egunean alabak jotzen duen beste talde baten diskoaren aurkezpena Ahotsenean. Zirribor

ro eta ohar horiek lagunartea badudan sentipena ematen didate.

Bizitzan gauzarik zailenetakoa da lagunartearen eta barne bizitzaren arteko oreka hori. Badu Roland Barthesek “Comment vivre ensemble” (Nola elkarrekin bizi) izeneko liburu bat gaiaz. Anakoreta bakartien eta fraide komunitateen bizimoduaz azterketa harrigarria egiten du, baina bakoitzak bere formula aurkitu behar du. Batzuen kasuan literaturak elikatzen du barne bizitza, beste askori musikak edo arteak. Eta badirudi gastronomiak elikatzen digula lagunartea. Baina kontzeptu lausoak dira, gertatu izan baitzait upategi edo sagardotegi batera joan eta hirugarren tragotik aurrera barne bizitzaren susperraldi izugarri bat sentitzea ere. •

Ona, norentzat?

Xabier Izaga
Gonzalez

Ona da. Hala diote Gasteizko Parlamentuko talde gehienek eta hala entzun diogu agintariren bati. Unibertsitate bat nola izango da, ba, txarra? Ona omen da hiriarentzat. Ingurumenarentzat, kaleko bankuentzat, edergarri gisa...? Edo esan nahi dute hiriko bizilagunentzat? Hiri-koentzat, herrialdekoentzat eta EAEkoentzat? Ordainduko dutenentzat, alegia. Hirikoek gehixeago, Aldundiak eta Udalak –arabarrek eta gasteiztarrek, alegia– 48Ona mila euro jarriko baitituzte.

Asteon onartu du Parlamentuak Baskonia-Alaves taldeak sustatutako unibertsitate

pribatua sortzeko lege proiektua oso ko bilkurara iristea; hau da, bideratzen jarraitzea.

EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU haren aurka agertu ziren. «Hezkuntzaren esparrua, oinarritzko eskubide den aldetik, ezin da enpresen onuraren eta irabazi asmoaren esparrua izan, eta betiere helburu horiek dituzten proiektuak ezin dira inola ere funts publikoen bidez finantzatu». EHUko sindikatuak, Ikasleen Kontseilua eta gazte erakundeak ere Euneiz European University Gasteiz diru publikoarekin finantzatzearen aurka agertu ziren (eta ni ere bai).

Lanpostuak sortuko omen ditu. Jaki-na, enpresa pribatuen helburua lanpostuak sortzea da, nonbait, behar ez badituzte ere. Nik uste nuen kosturik txikienean irabazirik handiena lortzea zela. Amaitu berri dago Tubacexeko langileen borroka, lanpostuei eusteko, enpresak herritarrei oparitutako lanpostuak, antza.

Galdetu dezatela lanposturik behar den ospitaleetan. Hezkuntzaz ari gara, ordea. Galdetu dezatela lanposturik behar den unibertsitate publikoan. Irakaskuntza eta ikerkuntzarako finantziatziazirik behar den. •